

ELEKTRONIKOKI IZENA EMATEKO JARRAIBIDEAK

Sartu Osakidetzaren webgunean zure nabigatzailearen bidez:

<https://lanpoltsa.osakidetza.eus/c28/>



Aldi baterako kontratazio zerrendak

EU ES

ONGI ETORRI ALDI BATERAKO KONTRATAZIOAREN WEBGUNERA

Aldi baterako kontratazioa langileak hautatu eta hornitzeko prozesu bat da, eta Osakidetzaren aldi baterako kontratazio-beharrei erantzuteko profesionalak hartzea du helburu.

Bai zerrendak egiteko, bai aldi baterako izendapenak kudeatzeko, berdintasun-, merezimendu-, gaitasun-, eraginkortasun- eta arintasun-printzipioak bete behar dira, bai eta objektibotasun- eta gardentasun-printzipioak ere.

Hemen argitaratzen diren datu pertsonalen helburua da interesa dutenei informazioa ematea Aldi Baterako Kontratazioarekin lotutako hautaketa-prozesuei buruz.

Beraz, debekatuta dago datuak inolako euskarritara jaitsi eta gero tratatzea (Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa).

Sartu →

ABISUAK

03-04-2025	KONTRATAZIO-ZERRENDAK EGUNERATZEA ETA INTEGRATZEA	
02-04-2025	GSU-KO MEDIKU FAKULTATIBO ESPEZIALISTA, BALORAZIO-BATZORDEAREN OSAKETAREN IZENDAPENA, DONOSTIALDEAKO ESIA.	
26-03-2025	INFORMATIKAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA, KONTRATAZIO ESPEZIFIKOA EGITEKO BALORAZIO BATZORDEAREN OSAERA IZENDAPENA	

[Ikusi ohar gehiago](#)

INFORMAZIO GEHIAGO

Bidali kontsulta

Ohiko galderetara joan

Dokumentazio interesgarria joan

Aukeratu "EU" hizkuntza-bertsioa, euskarazko orrialdera sartu nahi baduzu.



ONGI ETORRI ALDI BATERAKO KONTRATAZIOAREN WEBGUNERA

Aldi baterako kontratazioa langileak hautatu eta hornitzeko prozesu bat da, eta Osakidetza aldi baterako kontratazio-beharrei erantzuteko profesionalak hartzea du helburu.

Bai zerrendak egiteko, bai aldi baterako izendapenak kudeatzeko, berdintasun-, merezimendu-, gaitasun-, eraginkortasun- eta arintasun-printzipioak bete behar dira, bai eta objektibotasun- eta gardentasun-printzipioak ere.

Hemen argitaratzen diren datu pertsonalen helburua da interesa dutenei informazioa ematea Aldi Baterako Kontratazioarekin lotutako hautaketa-prozesuei buruz.

Beraz, debekatuta dago datuak inolako euskarritara jaitsi eta gero tratatzea (Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa).

Sartu →

ABISUAK

03-04-2025	KONTRATAZIO-ZERRENDAK EGUNERATZEA ETA INTEGRATZEA	
02-04-2025	GSU-KO MEDIKU FAKULTATIBO ESPEZILISTA, BALORAZIO-BATZORDEAREN OSAKETAREN IZENDAPENA. DONOSTIALDEAKO ESIA.	
26-03-2025	INFORMATIKAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA, KONTRATAZIO ESPEZIFIKOA EGITEKO BALORAZIO BATZORDEAREN OSAERA IZENDAPENA	

[ikusi ohar gehiago](#)

INFORMAZIO GEHIAGO

Bidali kontsulta

Ohiko galderetara joan

Dokumentazio interesgarrira joan

Karatula honetan, aukera izango duzu:

- Kontsulta bidaltzeko
- Ohiko galderetara joateko
- Dokumentazio interesgarrira joateko:

Erabiltzailearen Eskuliburua

Ohiko Galderak

- **SARTU**

Eskaera egiteko, sakatu "Sartu"

Identifikazioa elektronikoa izango da:

Osakidetzako langile aktiboa bazara, sartu zure NANA/AIZA eta Osakidetza sistema informatikoetara sartzeko erabiltzen duzun pasahitza



Saio hasiera

Herritarrak

Osakidetza profesionala

Erabiltzailea

Sartu zure erabiltzailea

Pasahitza

Idatzi pasahitza

Hasi saioa

- **Osakidetza langile aktiboa ez bazara**, edo Osakidetza langilea izanik ez baduzu zure sarbide-gakoa gogoratzeko, erabili elektronikoki identifikatzeko erabilgarri dagoen beste edozein baliabide.

Zalantzarik baduzu, kontsulta ezazu "Herritarren sarbidearen inguruko ohiko galderak" Aldi baterako kontratazioaren webgunean.



Euskadiko identifikazio elektronikoa

Osakidetza-Servicio Vasco de Salud-k zure autentifikazioa eskatzen du

Aukera ezazu hurrengo identifikazio sistema hauetatik zein erabili nahi duzun:

BAKQ

NAN/AIZ, pasahitza eta koordenadak
NAN/AIZ, pasahitza eta SMS kodea

Ziurtagiri digitalak

cl@ve

cl@ve

BakQ nola eskatu?

Ezeztatu

Identifikatu ondoren, sakatu "**Hautagaia**" eta Eremu pribatura sartuko zara, "Eskaera Berria" aukeratuz.

Inskripzioa behar bezala egiteko, Datu pertsonalak eta Helbide-datuak bete behar dira.

Hasiera | Eskara

- Hasiera
- Nire poltsak
 - Datu pertsonalak
 - Hobespenak aldatzea
 - Erreklamazioak eta errekursoak
- Nire eskaintzak
- Ekintzen erregistroa
- Kontsulten postontzia
- Eskara berria**
- Hirugarrenen eskara berria
- Laguntza
- Abisuak bistaratu
- Abisu publikoak
- Itxi saila

Eskara berria

* duten eremu guztiak bete behar dira

Datu pertsonalak

Izena *

Lehen abizena *

Bigarren abizena *

Jaioteguna *

jaioteguna*

Sexua *

Sexua*

NAN

AIZ

AIZ

Nazionalitatea *

Nazionalitatea*

espainiar

Helbidearen datuak

Bide mota *

Bide mota*

Kalea

Helbidea *

Posta-kodea *

Probintzia *

Probintzia*

Udalerria *

Herrialdea *

Herrialdea*

Telefono mugikorra

+34

Telefono finkoa

+34

Telefono finkoa

Helbide elektronikoa

Helbide elektronikoa

☐ Ez dut jakinarazpenik jaso nahi posta elektronikoz. GARRANTZITSUA: Helbide elektronikorik ematen ez baduzu, ez dituzu jasoko bide horretatik kudeatutako kontratazio-ekaintzak.

Egin aurrera

Derrigorrezko eremu guztiak bete behar dituzu. (*). Ondoren, sakatu “Egin aurrera”.



Jarraian, hautatu izena eman nahi duzun kategoria/lanpostu funtzionala, lanaldi mota bete eta izendapen laburren zerrenda sartzeko eskatu.



Hasiera | Eskaera

☐ Hasiera☐ Nire poltsak

- ☐ Datu pertsonalak
- ☐ Hobespenak aldatzea
- ☐ Erreklamazioak eta errekursoak

☐ Nire eskaintzak☐ Ekintzen erregistroa☐ Kontsulten postontzia☒ Eskaera berria☐ Hirugarrenen eskaera berria☐ Laguntza☐ Abisuak bistaratu

Abisu publikoak

Itxi saloa

Eskaera berria

Kategoria/Lanpostu funtzionala hautatzea

Hautatu kategoria*

Lanaldia

Lanaldia*

Izendapen laburren zerrenda

Zerbitzu-erakunderik hautatzen ez baduzu, ez zara agertuko ZE horretako izendapen laburren zerrendan eta ez duzu jasoko ZE horretako eskaintzarik.

Hautatu zerbitzu-erakundea I

Hautatu zerbitzu-erakundea

Hautatu zerbitzu-erakundea II

Hautatu zerbitzu-erakundea

Izendapen luzeen zerrenda

Hautatu zerbitzu-erakundeak.

Zerbitzu-erakunderik hautatzen ez baduzu, barrutiko izendapen luzeen zerrendatik aukeratu duzun/dituzun barrutiko/barrutietako edozein zerbitzu-erakundetatik jaso ahal izango dituzu izendapen-eskaintzak.

Hautatu zerbitzu-erakundeak.

Barrutiko izendapen luzeen zerrenda.

Barrutirik hautatzen ez baduzu:

- Izendapen luzeen zerrendan zerbitzu-erakundea hautatu baduzu, zerbitzu-erakunde hori kokatuta dagoen barrutiko izendapen-eskaintzak jaso ahal izango dituzu.
- Ez baduzu hautatu zerbitzu-erakunderik izendapen luzeen zerrendan, hiru Barrutietako edozein zerbitzu-erakundetako izendapen-eskaintzak jaso ahal izango dituzu.

- ☐ Araba
- ☐ Bizkaia
- ☐ Gipuzkoa

Desgaitasuna

☐ Organo eskudunak % 33ko desgaitasuna edo handiagoa aitortu dit

Aurrekoa

Egin aurrera



- **Lanaldia.**3 aukeretako bat hautatu behar duzu.

Lanaldia

Lanaldia*

Edozein lanaldi mota

Lanaldi osoa bakarrik

Lanaldi-murrizketak bakarrik

- **Izendapen laburren zerrenda**

Zerbitzu-erakunde batean edo bitan sartzeko eska dezakezu, eta Erakunde bakoitzaren barruan, guztiz hautatu nahi ez baduzu, agertzen diren aukerak hauta ditzakezu.

Izendapen laburren zerrenda

Zerbitzu-erakunderik hautatzen ez baduzu, ez zara agertuko ZE horretako izendapen laburren zerrendan eta ez duzu jasoko ZE horretako eskaintzarik.

Hautatu zerbitzu-erakundea I

Hautatu zerbitzu-erakundea

Ezabatu Zerbitzu-erakundea

Hautatu aukeretako bat

- ☒ Hautatu zerbitzu-erakundea osorik
- ☐ Aukeratu eremuaren arabera
- ☐ Aukeratu gehienez 5 lehentasun

Hautatu zerbitzu-erakundea II

Hautatu zerbitzu-erakundea



- **Izendapen luzeen zerrenda**

Nahi dituzun zerbitzu-erakundeak hautatzeko aukera daukazu. Geografikoki Autonomia Erkidegoa duten zerbitzu erakundeek kasuan, lurraldeegoitza bat edo batzuk aukeratu ahal izango dira. Lurralde egoitza aukeratzeko ez bada, edozein lurralde egoitzatan izendapenak onartzeko prest zaudela ulertuko da.

Izendapen luzeen zerrenda

Hautatu zerbitzu-erakundeak.

Zerbitzu-erakunderik hautatzen ez baduzu, barrutiko izendapen luzeen zerrendatik aukeratu duzun/dituzun barrutiko/barrutietako edozein zerbitzu-erakundetatik jaso ahal izango dituzu izendapen-eskaintzak.

Hautatu zerbitzu-erakundeak.

- **Osasun Barrutia :**

Aukeratu osasun-barruti bat, gutxienez. Bestela, izendapen luzeen zerrendan aukeratu duen zerbitzu erakundea kokatuta dagoen arloan izendapenak onartzeko prest zaudela ulertuko da.

Barrutiko izendapen luzeen zerrenda.

Barrutirik hautatzen ez baduzu:

- Izendapen luzeen zerrendan zerbitzu-erakundea hautatu baduzu, zerbitzu-erakunde hori kokatuta dagoen barrutiko izendapen-eskaintzak jaso ahal izango dituzu.

- Ez baduzu hautatu zerbitzu-erakunderik izendapen luzeen zerrendan, hiru Barrutietako edozein zerbitzu-erakundetako izendapen-eskaintzak jaso ahal izango dituzu.

- ☐ Araba
☐ Bizkaia
☐ Gipuzkoa

- **% 33ko desgaitasuna edo handiagoa aitortua izanez gero, adierazi:**

Desgaitasuna

- ☐ Organo eskudunak % 33ko desgaitasuna edo handiagoa aitortu dit

Aurrekoa

Egin aurrera

Sakatu "Egin aurrera" eta inskripzio eskaera bidali aurretik laukia markatu behar duzu:
"Aldi baterako kontratazio zerrendetan onartua izateko baldintza hauek irakurri eta onartu ditudala adierazten dut":



Hasiera | Eskiera

☐ Hasiera☐ Nire poltsak☐ Datu pertsonalak☐ Hobespenak aldatzea☐ Erreklamazioak eta☐ errekurtsioak☐ Nire eskaintzak☐ Ekitzen erregistroa☐ Kontsulten postontzia☒ Eskiera berria☐ Hirugarrenen eskiera berria☐ Laguntza☐ Abisuak bistaratu

Abisu publikoak

Itxi saioa

Eskiera berria

1. Behean sinatzen duenak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuari eskatzen dio eskaera honetan aipatzen diren aldi baterako kontratazio zerrendetan onar dezala. Eskabide honetako datuak betetzean, Osakidetza baimena ematen zaio datu horiek erabiltzeko, Aldi Baterako Kontratazio Akordioan datu horien erabilerari buruz xedatutakoa betez. Halaber, zerbitzu sanitarioak emateko titulartasun pribatuko eta irabazi-asmorik gabeko zentro sanitarioekin atxikimendu-hitzaurren espezifikoa izenpetzeko betekizunei eta prozedurari buruzko irailaren 12/2018 4 Dekretuaren arabera, atxikitako zentro sanitarioetan egiten diren kontratazio-eskaintzak jasotzeko aukera dakar.

2. Aitortzen dut, nire erantzukizunpean, eskabide honetan jasotako datuak egiazkoak direla eta Aldi Baterako Kontratazioari buruzko akordioan zerrendetan parte hartzeko berariaz adierazitako baldintzak betetzen ditudala; halaber, eskabide honetan agertzen diren datu guztiak agiri bidez frogatzeko konpromisoa hartzen dut, aipatu Aldi Baterako Kontratazio Akordioan ezarritako moduan eta epean.

3. Aitortzen dut jakinaren gainean nagoela Datu Pertsonalak Babestari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren xedapen gehigarriak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua gaitzen duela, bere eskumenak baliatuz, eskaera honetan eta prozesuaren fase guztietan adierazitako datu pertsonalak zehatzak direla baieztatzeko beharrezkoak diren egiaztapenak egiteko, nortasun-datuak egiaztatzeko eta deialdian parte hartzeko baldintzak, prestakuntza-maila eta euskara-maila egiaztatzeko. Horretarako, datuak laga ahal izango zaizkie egiaztapenak egiteko erregistroak dituzten administrazioei, Aldi Baterako Kontratazio Akordioan ezarritakoari jarraituz.

4. Nolanahi ere, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak eskubidea izango du interesdunari eskatzeko oinarrietan eta aplikatzekoak diren beste arau batzuetan ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezteko, baldin eta ezin badira kontsultatu bitarteko elektronikoen bidez.

5. Jakin badakit tratamendu horiei uko eginez gero, komeni dela ukoaren arrazoiak justifikatzea (Datuak babesteari buruzko 2016/679 Erregelamenduaren (EB) 21. artikulua) helbide elektroniko honen bidez: lanpoltsa@osakidetza.eus.

Legezko baldintzak eta baimenak

- ☒ Aldi baterako kontratazio zerrendetan onartua izateko baldintza hauek irakurri eta onartu ditudala adierazten dut. (*)
- ☒ Baimena ematen diot Osakidetza Euskal osasun zerbitzuari nire identifikazio-datuak beste administrazio publiko batzuei emateko, enplegu-eskaintzak jasotzeko soilik, Kontratazio Akordioan ezarritakoaren babesean.

Aurrekoa

Bidali

Eskiera bidali ondoren, erregistratu eskatutako titulazioa CVan, eta eskaeraren frogagiria deskargatu ahal izango da.

Eskiera berria


Izen-ematea egin da.

Kategoria honetarako, ezinbestekoa da eskatzen den titulua erregistratua izatea CVan. [Erregistratu CVan](#)

[Deskargatu PDF Eskiera](#)



BALDINTZAK ETA MERITUAK AIPATZEA



Izen ematea egin ondoren, "[Erregistratu CVan](#)" atalean klik egin behar duzu. Aplikazioa automatikoki kargatuko zaizu, NANA eta pasahitza sartu beharrik gabe.

Curriculum Vitaearen aplikazioan egiaztatu behar duzu ea erregistratuta eta baliozkotuta dituzun izena eman duzun kategorian alegatu nahi dituzun betekizunak eta merezimenduak. Hori atal hauetan egiaztatu ahal duzu: **titulu akademikoa, euskara, laneko esperientzia, IT-txartelaren egiaztagiria** (horiek Administrazio Laguntzailea eta Administrazio kategorietan) eta **gidabaimena** (baldintza den kategorietan).

Erregistratuta ez badaude, mekanizatu egin beharko dituzu, eta egiaztagiria erantsi. Era berean, gaizki erregistratuta eta baliozkotu gabe badituzu, alda ditzakezu eta egiaztagiriei erantsi.

Dokumentazioa erantsi ondoren, hori elektronikoki baliozkotuko da. Agiri horiek elektronikoki baliozkotu ezin badira, jatorrizko dokumentua edo dokumentu konpultsatua aurkezteko eskatuko dizu kontratazioa kudeatzen duen unitateak, eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren.

CURRICULUM VITAEAREN APLIKAZIOAN IKUSIKO DITUZUN ATALAK

Curriculum Vitae aplikaziora sartzean, kontratazio-zerrendetan izena eman ondoren, curriculumaren hiru atal baino ezin izango dituzu ikusi:

- **Laneko esperientzia.** – Atal honetan, Osakidetza emandako zerbitzuak ikus daitezke (ofizioz erregistratzen dira), baita Administrazioaren beste erakunde batzuetan eman eta Osakidetza akreditatu direnak ere.



Osakidetzatik kanpoko esperientzia jasota ez baduzu, egindako zerbitzuak erregistratu eta jatorrizko ziurtagiria erantsi beharko duzu.

- **Prestakuntza. - Atal honetan, honako hauetara sartu ahalko zara:**
 - **Titulu akademikoa:** Amaitutako ikasketa akademikoak bakarrik erregistratu behar dira, titulu ofiziala dutenak, eta agiria erantsi behar duzu.

Zure tituluak agertzen ez badira, erregistratu eta titulua erantsi behar duzu.

Aukera dago NISAEtik datuak deskargatzeko. NISAE da euskal sektore publikoko administrazioen eta erakundeen artean eta gainerako administrazioekin datuak elektronikoki trukatzeko plataforma.

Titulu akademikoaz gain, **Espediente akademikoa** eta **Espezialitatea** erregistratzeko aukera ematen du, Osasun Zientzietako tituluen kasuan.

GARRANTZITSUA: Kontuan izan kategoria batzuetan, zehazki Administrari laguntzailea eta Zeladorea kategorietan, eskatutako titulazioetako bat baino gehiago izan ditzakezula. 2016-2017ko EPEko azterketa egin bazenuen, EPE horretako eskabide-epareen azken egunerako egiaztatuta zenuen titulazioa sartu behar duzu; bestela, azterketan lortu zenuen puntuazioa zero puntutan geratuko da.

Oharra: kategoria bakoitzerako eskatzen diren titulazioak ikusteko, begiratu **“Ohiko galderak. 2021 zerrendak”** dokumentua; bertan, oharren atalean, azken EPEaren oinarri espezifikoak eta Osakidetzaaren lanpostu funtzionalen Dekretua ikusi ahalko dituzu.

- **Graduondoko Prestakuntza.**

- **Euskara:** Osakidetza onartutako edo Osakidetza egiaztatutako euskara-eskakizunak ikus daitezke atal honetan.

Lortutako euskarazko hizkuntza-eskakizunak deskarga eta erregistra ditzakezu, aplikazioan sartu gabe badaude.

- **IT txartelen egiaztagiria:**Gaur egun, Osakidetza ESI European Software Institute-k egiaztatutako IT txartelen ziurtagiriaren datuak aldi-aldi kargatzen ditu CV aplikazioan. Ez dituzu erregistratu behar.

- **Bestelako merezimenduak. - Atal honetan dokumentu hauek mekanizatu eta egiaztagiria erantsi ahal izango dituzu :**
 - Gida baimenak
 - Gaikuntza profesionalak
 - Akreditazio profesionalak
 - Egiaztagiri profesionalak

NISAEtik deskargatutako erregistroei dagokienez, dagokion egiaztagiria erantsi behar zaio erregistroari.

Kontuan hartu behar da erregistroa lehenengoz gordetzean mezu hau agertuko dela, erregistroa **“Zirriborro”** gisa gordeko dela jakin dezazun. **“Zirriborroa”** egoeran dauden erregistroak ez daude eskuragarri Osakidetza berrikusteko; **“Bidalita”** egoerara aldatu behar dituzu Osakidetza berrikus ditzan. **“Zirriborro”** egoeran dauden erregistroak **ez**



dira joko ez alegatu ez egiaztatutzat, 2021eko kontratazio-zerrendetako eskabideari dagokionez. Horregatik, oso garrantzitsua da erregistroko informazioa sartzen amaitzen duzunean **“Bidali erregistroa”** sakatzea.

GARRANTZITSUA: curriculum vitaearen sartutako erregistro berriak kontuan hartuko dira baldin eta eguneratzeko eta/edo integratzeko mozketaren dataren aurretik **“Bidalita”** egoeran badaude.

